

2006

T X O S T E N A

LKS



INPLANTAZIOA

Andaluzia
Aragoi
Kantabria
Katalunia
Galizia
Madril
Nafarroa
Euskadi

Costa Rica
Frantzia
México
Dominikar Errepublikak
Uruguai

J. M. Arizmendiarrjeta pasalekua, 5
LK3 eraikina
20500 Arrasate (Gipuzkoa)

www.lks.es

LKS

AURKIBIDEA

- 4 Konfiantza erein
- 5 Aurrerapen nabarmenak hedapenean eta berrikuntzan
- 6 Nortzuk gara
- 7 Gure bezeroen neurria egindako enpresa soluzioak
- 8 Gure enpresa
- 10 Berrikuntza
- 11 Internazionalizazioa
- 12 2006rako Gestio Txostena
- 13 2007rako erronkak
- 14 Erreferentziak
- 30 06ko irudiak





AGURRA

KONFIANTZA EREIN

laz, atal honetan bertan, agerian utzi genuen gure bezeroekin eta bizi garen gizartearekin konpromiso argia hartzea izan dela eta dela gure apustua, eta hurbiltasuna dela konpromiso hori sendotzen duen balioa, konfiantza sortzen duena, azken buruan. Hirugarren faktore horretan, hain zuzen, sakondu dugu gehien 2006an, eta horretarako lau ildo funtsezko eta osagarri ezarri ditugu. Batetik, konfiantza hori barneratu. Norberarengandik hasi, norberaren ezagutzatik, gaitasunetatik, auto-konfiantza dei genezakeen hori lantzeko.

Giltzarri horri jarraiki, lehenengo urratsa taldean konfiantza izatean datza, eta horretarako taldea ez da egitura huts gisan ulertu behar, baizik eta konfiantza hori adierazteko gai ere baden pertsona talde gisan. Horren guztiaren emaitza gure egiteko moduan konfiantza izatea da.

Hirugarren bektoreak ere pareko garrantzia du, izan ere, enpresa proiektuan konfiantza izatea, norabide zuzena hartua duen proiektu sendo batean jarri dugu gure konfiantza, urtero-urtero frogatzen baita hori, aurreikusitako helburuak lortuta.

Eta azkenik, bezeroarekiko konfiantza dugu, lankidetzan dihardugun enpresekiko konfiantza. Hala, guk soluzioak eskaintzen dizkiegu, euren helburuak lortuaz joan daitezten.

Javier Malet

LKS Koop. Elkarteko Kontseilu Errektoreko Presidentea.

Jon Igarza

LKS Ingeniaritza Koop. Elkarteko Kontseilu Errektoreko Presidentea.



AURKEZPENA

AURRERAPEN NABARMENAK HEDAPENEAN ETA BERRIKUNTZAN

2006 ekitaldia urte ona izan da LKSrentzat. Zerbitzu profesionalak eskaintzeko proiektu integral gisan sendotu egin gara, eta esanguratsua da izan dugun igoera bai fakturazioan -50 milioi eurotik gora- bai pertsoneri dagokienez: 615etik gora. Horrek guztiak gure lehiakortasun posizioa hobetzea ekarri du, eta baita gure bezeroentzako izan nahi dugun enpresa erreferente horretatik gero eta hurbilago egotea ere.

Ekitaldi honetan zehar, hainbat esparrutan bultzatu dugu gure jarduna, eta bereziki nabarmentzekoak dira hala hedapenean nola berrikuntzan egin ditugun aurrerapenak.

Berrikuntzari dagokionez, MCCko Ingeniaritza eta Zerbitzuen Dibisioko gainerako enprekin batera (MISE), ISEA eratu dugu, hau da, gure berrikuntzarako gaitasuna bultzatzeko helburua duen I+Gko unitate bat.

Era berean, 2006an Globalizazioari buruzko I. LKS Foroa egin da. 200 pertsona baino gehiagok parte hartu du bertan eta oihartzun handia izan du komunikabideetan. Gure asmoa da Foroa gai ezinago interesgarri honi buruzko hausnarketa gune bihurtzea, eta urterto jardunaldiak egitea, non beste enpresa, unibertsitate, herri administrazio eta abarreko adituekin eztabaidatu ahal izango dugun zein den sektorearen egoera eta zeintzuk diren garatu beharreko aukera estrategikoak.

Aurten, gainera, gure XV. urteurrena ospatu dugu. Gure ustez, tarte horretan urrats esanguratsuak egin du LKSk eta horrek ahalbidetu du zerbitzu profesionalak eskaintzen duen talderik garrantzitsuenetakoa izatea gure inguruan. Dena den, seguru gaude etorkizunean hobera egingo dugula eta gizarteari adierazle hobeak erakusteko gai izango garela. Asmo horrekin ekin diogu 2007ko ekitaldiari.

Fermín Garmendia

LKS Koop. Elkarteko Zuzendari Nagusia.

Alberto Gorroñoitia

LKS Ingeniaritza Koop. Elkarteko Zuzendari Nagusia.

NORTZUK GARA

LKS enpresa talde bat da eta Mondragon Korporazio Kooperatiba (MCC) barruan dago. MCC Euskal Herriko lehen enpresa taldea da eta Espainiako zazpigarrena. Jarduera Industrialean eta Banaketa jardueran 12.692,3 milioi euroko salmentak ditu; Finantza jardueran 12.332,1 milioi euro baliabide bitartekatutan, eta plantillan 82.112 langile zeuden guztira 2006. urte amaieran.

Izaera juridiko desberdina daukaten bi elkarte kooperatibok eta hamar enpresa partaidetuk osatzen dute, eta etengabeko hedapenari eta hazkunde iraunkorrari eusten diote, giza balioetan eta balio sozialetan oinarritutako filosofia batekin.

LKS Taldea Arrasaten sortu zen eta lurralde Espainiar osoan hedatu da. Gaur egun, atzerrian hedatzeko estrategiari jarraituz, bere bezeroei laguntzen ari da nazioarteko garapenean.





GURE BEZEROEN NEURRIRA EGINDAKO ENPRESA SOLUZIOAK

LKSk zerbitzu profesionalak eskaintzen ditu gestio eta aholkularitzan, aholkularitza juridikoan, arkitekturan eta ingeniartzan, higiezin aholkularitza eta diseinu eta berrikuntzan, gure bezeroei gero eta balio erantsi handiagoa eskainiz.

Horretarako, erabakiak hartzeko erdigunean jartzen dugu bezeroa, eta funtsezkotzat jotzen dugu pertsonen gaikuntza eta garapena, demokratikoa eta parte hartzailea den enpresa batean.

Gure gestio kultura etengabeko hobekuntzan, berrikuntzan eta aldaketara egokitzean datza.



GURE ENPRESA

LKS Ingeniaritza, Koop. Elk.

KONTSEILU ERREKTOREKO PARTAIDEAK

Jon Igarza (Presidentea)
Juan Ayesta (Presidenteordea)
Arantzazu Iztueta (Idazkaria)
Aitor Lejarzegi (Kidea)
Carlos Dorronsoro (Kidea)
Nerea Mugika (Kidea)
Santiago Sanchez (Kidea)

ZUZENDARITZA KONTSEILUKO PARTAIDEAK

Alberto Gorroñoigoitia (Zuzendari Nagusia)
Agustín Irazabal (Korporazio Zuzendaria)
Emilio Ormaechea (Garapen Zuzendaria)
Jaime Carmona (Finantza Zuzendaria)
Mikel Alzola (Pertsonen Gestio Zuzendaria)
Jesús M^a García (Eraikuntza Zuzendaria)
Gabriel Silva (Ingeniaritza Zibileko Zuzendaria)
Elisabeth Urrutia (Diseinu eta Berrikuntza Zuzendaria)
Jon Berbel (Higiezin Aholkularitza Zuzendaria)

LKS Koop. Elk.

KONTSEILU ERREKTOREKO PARTAIDEAK

Javier Malet (Presidentea)
Justo Martín (Presidenteordea)
Isabel Fernandez (Idazkaria)
Idoia Abalia (Kidea)
Koro Arrizabalaga (Kidea)
Mila Díaz (Kidea)
Alfonso Etxanobe (Kidea)
Beatriz Lizarralde (Kidea)

ZUZENDARITZA KONTSEILUKO PARTAIDEAK

Fermin Garmendia (Zuzendari Nagusia)
Eva Larrea (Gestioko Aholkularitza Zuzendaria)
Jesús Dorronsoro (Teknologia Aholkularitzako Zuzendaria)
Jesús Martínez (Zerbitzu Juridietoako Zuzendaria)
Luis de la Hoz (Proiektu Estrategikoen Zuzendaria)

LKS TALDEKO BESTE ENPRESA BATZUK

ABANTAIL, SL (www.abantail.es). Enpresa hau aitzindaria da egokitze-diseinuaren optimizazio eta automatizazioan (produktua bezero bakoitzaren behar zehaztutara pertsonalizatzea). Kudeatzaile: Sonia Ortubai.

ATE GIZA BALIABIDEAK, SL

(www.aterecursoshumanos.com). Aragoiko aholkularitza zerbitzua, pertsonen gestioari buruzko aholkularitzan espezializatua. Kudeatzaile: Alfredo Martinez.

IBAI SISTEMAK, SA (www.ibai.com). Agiri eta biblioteka gestioan espezializatutako soluzio informatikoak. Kudeatzaile: Iñigo Lapitz.

i3s, SA (www.i3s.es) SAP garapenak ezartzen espezialistak. Kudeatzaile: Andoni Aranzamendi.

INDISER ZERBITZU AURRERATUAK, SA (www.lks.es). Upelategien diseinu eta eraikuntzan espezializatutako enpresa. Kudeatzaile: Hector Madrigal.

LKWENDLAND, SL (www.lk-wendland.com). Aholkularitza juridikoa eskaintzen die Espainian edota Alemanian interesak dituzten alemaniar eta espainiar enpresa eta partikularrei. Kudeatzaile: Manfred Wendland.

LKS CA y CARIBE, SA (www.lkscaribe.com). Zerbitzu profesionalen enpresa, Ertamerika eta Karibe ingururako. Kudeatzaile: Dietmar Gamboa.

LKS IAMM, S.L. (www.lks.es). Merkatuen ikerketa. Kudeatzaile: Raquel Diaz.

LKS HAUTAPENA ETA PRESTAKUNTZA-AURKI, SL (www.lks.es). Langileen hautapena eta prestakuntzaren gestioa. Kudeatzaile: Javier Guerra.

LKS STUDIO, SA (www.lksstudio.es). Ingeniaritza eta arkitektura enpresa, IPM-Integral Project Management delakoan espezializatua. Zuzendari: Emilio Ormaechea.

LKS TASAZIOAK, SA (www.lkstasaciones.es). Higiezin, aktiboen eta eskubideen balorazioa. Kudeatzaile: Jon Berbel.

PROSPEKTIKER, SA (www.prospektiker.es). Azterketa prospektiboetan adituak. Kudeatzaile: Mikel Irasuegi.

SEI, SA (www.seimcc.com). Frantziako merkatura zuzendutako soluzio informatikoak. Kudeatzaile: Dominique Labeyrie.



BERRIKUNTZA

Berrikuntzaren aldeko apustua konstante bat da LKSn, eta ISEA sortu izana -Zerbitzu Aurreratuen I+G unitatea- 2006an azpimarratu beharreko mugarri nagusia izan da.

Hainbat eta hainbat jarduera egin da, eta horien artean nabarmentzeko modukoa da berrikuntza sustatzeko metodologiak garatzearen alde egin dugun apustua: enpresetan, internazionalizazioan, Administrazio Digitalean, software aurreratuen garapenean (logistikan, hornitzaileekiko harremanetan...), Corporate Finance negozioaren merkaturatzean...

2005ean LKS IDEA proiektu bat baino ez zen. 2006an, berriz, proiektua sortu eta martxan jarri da, sormen tailerrak eratuz, talde autogestionatuak abiaraziz eta etorkizuneko hiriaren inguruan adituak diren kolaboratzaileekin hausnarketa estrategikoari buruzko jardunaldiak partekatuz: 2030 agertokia. Programa nazionaletan ere beste proiektu batzuk sortu dira, eta **Innoaction**, workshop eta antzeko foroetan parte hartu dugu, Euskadiko Ingurumen Industrien Clusterraren Elkarateak (**Aclima**) antolatuta, Eraikuntza Iraunkorrari buruzko Azterketa egiteko.



INTERNAZIONALIZAZIOA

Espainiar merkatuan sendotu egin gara, presente gaude komunitate nagusietan, eta jarduera globalaren barruan gero eta pisu handiagoa hartzen ari gara. Horrek guztiak atzerrian gero eta gehiago hedatzea ahalbidetu du. 2006an zehar, internalizazioak LKS taldea haziaz joateko faktoreetako bat izaten jarraitu du.

Prozesu hori ikuspegi bikoitzetik gertatu da. Alde batetik, beste herrialde batzuetako merkatu berriak jorratzen hasten diren bezeroei laguntzen, eta bestetik, tokiko enprekin egindako lankidetzak itunak, enpresa berrien edo itun estrategiko berrien sorreran gauzatzen direnak.

Internazionalizazio ereduak alde aurreko hausnarketa sakon baten emaitza izan da, jarduera plan baten ezarpenarekin bukatu dena. Plan horretan potentzialari buruz eta lehentasunezko herrialdeei buruz egindako azterketa, plan estrategikoaren emaitzak bildu dituenak, egokia izan dela frogatu da.

Hala, taldearen presentzia indartu egin da nazioartean, besteak beste, Mexiko, Dominikar Errepublika, Txekiar Errepublika, Polonia, Maroko eta Txinan. Azken herrialde honetan, bildu ditugun eta tokiko enprekin akordioak lortuta garatu beharreko proiektuez gainera, aipatu behar da MCCrekin lankidetzan ari garela korporazioa Shanghaiko Kunshango gune industrialean sustatzen dabilen industrialde berria diseinatu eta garatzeko.





2006RAKO GESTIO TXOSTENA

2006. urtea ontzat eman daiteke, zeren eta LKSren proiektua sendotzeaz gainera, garrantzi handiko erabakiak hartu baititugu, gerora begira proiektua sendotzen lagunduko dutenak.

Taldearen diru sarrerek gorakada garrantzitsua izan dute aurreko ekitaldiaren aldean eta ekitaldiaren bukaeran zorroa ondo dago, jarduera komertziala oso aktiboa izan baita, eta produktibitatea modu esanguratsuan hobetu baita.

LKS Koop. Elkartean ahalegin esanguratsua egin dugu 06GPean zehaztutako erronkak garatzeko. Erronka horiek 5 atal handitan bildurik daude:

- **Antolamenduari** dagokionez, organigrama proiektu berriaren beharretara egokitu da eta aurrera egin dugu Merkatu Talde Estrategikoen garapenean.
- **Pertsonei** dagokienez, jarduerak garrantzi handikoak izan dira, dira, eta izango dira, eta Pertsonen Batzordearen “rolak” oso aktiboa izaten jarraituko du.

- **Azpiegituretan** aurrerapenak oso nabarmenak izan dira (egoitza berriaren inaugurazioa Kantabrian, bideokonferentzia sarea egin da...), eta baita **Marketingean** (Zabalkunde Jardunaldi asko, dokumentazio berria...) eta **Partaidetuetan** ere (Taldea bost enpresa sartzea, LKS Taldeko Zuzendaritza Batzordearen sorrera, Negozioekiko erlazioa sendotzea...).

LKS Ingeniaritza Koop. Elkarteari dagokionez, oso lan-karga handiko ekitaldia izan da, non aspektu hauek nabarmenduko ditugun:

- Antolaketa Eredu berria sendotzea.
- Gestio Komertziala sendotzea.
- Pertsonen Gestio Eredu berria zehaztea.
- Berrikuntza Batzordea abiaraztea.
- LKS Studio eta, ondorioz, Estatuan dugun presentzia, progresiboki sendotu eta integratzea.
- “Erabiltzeko Prest” delakoaren aldeko apustu gero eta handiagoa.
- G.S.R. integrazioa (Egoitzetako Zerbitzuen Gestioa): (sektore berria, hirugarren adina, eta sustapen negozio berria).
- Pertsonen Gogobetetasun inkesta egin da eta balantze globala positiboa izan da.
- Egoitza Korporatibo berriaren kokapena erabaki da.

2007RAKO ERRONKAK

Ingeniaritzari dagokionez, eraikuntzaren sektorean jarduera moteldu egingo dela aurreikusten da, eta horrek ahalegin komertziala progresiboki doblatzera behartuko gaitu EAEtik eta Nafarroatik kanpo, merkatu horretan gure presentzia areagotu ahal izateko, eta baita datozen urteei begira nazioarteko estrategia eta produktu-zerbitzu ildo berrietan gure dibertsifikatze politika zehazteko ere.

Nolanahi ere, negozio guztietan daukagun zorroa kontuan hartuta, a priori, uste izatekoa da hurrengo ekitaldia ere ona izango dela bai negozio zifrari bai errentagarritasunari dagokionez. Ikuspegi horretatik, hazkunde handiko beste urte bat espero da.

Inbertsioen atala ere garrantzi handikoa da, egoitza berriaz aparte, hortxe baitaude GRS enpresaren erosketa eta atzerrian egin litezkeen erosketa gehiago.

Helburuak hauek dira:

- Antolamendu komertziala sendotzea, eraginkortasun handiagoa helburu, batez ere jardueretan.
- LKS Studio eta gure proiektua Estatuan gero eta gehiago sendotu eta integratzea.
- Pertsonen Gestio eredu berria bukatu eta ezartzea.
- Kontu eta proiektu handi gehiago erakartzea.
- Berrikuntza Eredua definitzea.
- Gure internazionalizatze estrategiari eustea.
- “Erabiltzeko prest” delakoaren aldeko apustu sendoa egitea, jarduera ildo berri gisan.

- Higiezinaren sustapenaren inguruan, negozio linea berri baten aldeko apustua egitea, Aretxabaletako egoitzaren proiektua abiaraziz.
- Etengabeko hobekuntzan, prozesuetan eta kalitatean aurrera egitea; baita gure balio katearen “digitalizatzeko” progresioan ere.

Gestio Aholkularitza, Teknologia Aholkularitza eta Abokatuei dagokionez, 2005-2008 aldi estrategiko honetan garatzen hasitako jarduerak sendotzeko urtea izango delakoan ekin diogu 2007ari. Dena den, ahalegin espezifikoak egingo ditugu aurtengoa “integrazioaren urtea” izan dadin, horixe baita LKSn sustatu nahi dugun Proiektu berriaren oinarrietako bat.

Hauek dira erronka nagusiak:

- 1 Gure Proiektuaren argitze partekatuan erabakimenez aurrera egitea, proiektua ezaugarritu behar duten balio eta berezitasunak sendotuz.
- 2 Produktu/zerbitzu berriak garatzearen aldeko apustua egiten jarraitzea, gure katalogoa eta soluzio eskaintza osatzeko.
- 3 LKS Taldearen enpresa partaidetuak integratzeko bidean aurrera egitea, eta beste enpresa batzuk sartzeko azterketak egiten jarraitzea.
- 4 Komertzializazio eta marketing ahalegin esanguratsua egiten jarraitzea.

2006KO DATU EKONOMIKOAK

Diru sarrerak: 50 milioi euro

Pertsonak: 617

2007RAKO AURREIK.

Diru sarrerak: 62,5 milioi euro

Pertsonak: 745



GURE ERREFERENTZIAK

ARKITEKTURA ETA INGENIARITZA

ERAIKUNTZA

Iragan urtean ere eraikuntzarako proposatutako helburuak bete egin ziren, ez bakarrik kuantitatiboak, baita kualitatiboak ere. Azken horien artean, nabarmentzeko modukoak dira estatu osoan, Europa ekialdeko herrialdeetan, Txinan eta Marokon egindako jarduera.

■ Industria

Produkzio plantek protagonismo handia izaten jarraitzen dute: **TS** eta **Ederlango** galdategiak; produktu herdoilgaitzak tratatzeko plantak (**Inoxlan**, **Ulma**, **Condesa**); produktu erregogorren planta **AMR**-rako.

Munta handiko eraikuntzak, hala **logistikari dagokionez**, **GSE**ra Plataformak Aloveran (Guadalajara), Mallorcako **Eroskin**, **Arasur** eta **CTV** Araban, **Nederval** Valentzian, nola **sustapen modularrei** dagokienez (**Amenazar**, **Zikotz**, **Sprilur**).

Nazioarteko merkatuak esku hartze industrialak eskatu ditu Poloniako **Wrozamet**, Txekiako **Lana Batz**, Txinako **Fagor Arrasate** eta **Gestamp**, Errumaniako **Ulma** eta Marokoko **Mapsa** eta **Irizarren**.

■ Egoitzak

Sektore honetan hazten jarraitzen dugu, eta eraikuntza publiko nahiz pribatuan gestio proiektu, zuzendaritza eta lanetan parte hartzen dihardugu. Izan ere, 1.000tik gora bizitza unitate jarri dira martxan.

Hauek dira gure bezero aipagarri batzuk: **Visesa**, **Giotu**, **MCC-San Prudencio**, **Avantis- Gedeco**, **Pid** (Roan Taldea), **Qualitat Taldea**, **Urresti**, **Bizkailur**.





■ **Merkataritza**

Mieresko (Asturias) **zentro komertziala** inauguratu zen. Portugalete (Bizkaia) eta Zaragozako zentroetako lanak hasi dira eta proiektuak egin dira Alcala de Henares (Madril) eta Tenerifen.

Hainbat **hipermerkatutan** esku hartu da: Murtzia (3), Torrelodones (Madril), Benicarlo (Castello), Coruña eta Portugaleten (Bizkaia).

Halaber, supermerkatu eta aisia denda nahiz kirol denda proiektuak egin dira (**Abac, Fnac, Forum, If**).

■ **Arkitektura**

Hezkuntzari dagokionez, besteak beste, honako bezero hauekin lan egin dugu: Mondragon Unibertsitatea (MU), Madrileko **Unibertsitate Konplutensea**, Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU), Eusko Jaurlaritzako hezkuntza saila.

Ikerketa Zentroekin ere aritu gara: teknologia parkeen sarea, **Azti, Edertec, Ideko**.

Asia-kirola alor barruan, berriz, erakunde publikoekin aritu gara, hala nola Donostiako, Errenteriako, Amorebietako eta Madrilgo Udalekin, eta baita pribatuekin ere, esaterako, **Baskonia Fundazioarekin** eta **Hydrarekin**.

■ **Soziosanitarioa**. Erabat garrantzitsua izan da Aretxabaletan pertsona nagusientzako egoitza proiektua egi izana. Esku hartze horri esker, Legazpi, Otxandio, Segura eta Murtziakoa ere martxan daude. Gasteizko adindunentzako babespeko apartamentuak egiteko lau proiektutan sartu gara, guztira 500etik gora unitate egiteko.

Aurrera jarraitzen dute **San Joan Jainkoaren Ospitaleko** lanek, **Rianxoko Osasun Zentrokoek**, eta baita **Osakidetzarako** aurreneko lanek ere.

■ Proiektu bat idatzi dugu **Barcelorentzat**, Getxon **hotel** bat jartzeko, eta beste hainbat lan egiten dihardugu **Hesperia, Husa** eta **Accord** kateentzat.

Bulego eraikin garrantzitsuak **Banc Sabadell, Procam, Condesa, Landscape** eta **Pagozelayrentzat**.

■ **Erabiltzeko prest**

Jarduera hasiberri honi ekiteko, lan aipagarria egiten ari gara **Rotok, Vias** eta **Oñatranseko** eraikin industrialetan.



INGENIARITZA ZIBILA

■ Urbanizazio obrak

Logistikaren esparruari dagokionez, **Arasur** plataforma logistikoaren Obra Proiektu eta Zuzendaritza nabarmenduko dugu, 200 hektareatik gorakoa; industria esparruan, **A Estrada enpresa Parkearen** Proiektua (Pontevedra); arlo komertzialean, **Mierako Zentro Komertzialaren Urbanizazio** Obraren Proiektu eta Zuzendaritza (Asturias), eta egoitzei dagokienez, **Gurutze auzoko etxebizitza Eremuaren** Obra Proiektu eta Zuzendaritza (**Galdakao**, Bizkaia).

■ Garraio azpiegiturak

Nabarmendu beharreko lanik interesgarrienak hauek dira: **Urumea ibai gaineko bosgarren zubi** Proiektua, **Donostian**; **Deba Goieneko tranbia** eraikitzeko Proiektua (Bergara-Eskoriatza zatia) eta **Arrasateko Mendebal Saihesbidea** eraikitzeko Proiektua.

■ Obra hidraulikoak

Sektore hidraulikoan, **Erronkariko Altako Horniduraren** Obra Proiektu eta Zuzendaritza (Nafarroa), **Aretxabalguneko**

erreka kanalizatu eta berreskuratzeko Proiektua (**Larabetzu**, Bizkaia), **Nafarroako Hornidura Plan Zuzentzailea berrikustea** (Nafarroako Gobernu) eta antzeko jarduerak egin dira.

■ Kirol instalazioak

Alor honetan, bi lan esanguratsu aipatuko ditugu: **Ugalde-Ventasko kirol instalazioen** Proiektua eta Zuzendaritza (Irun) eta **Arrasate Kirol Esparruaren birmoldaketa** Obraren Zuzendaritza.

■ Ingurumena

Ingurumenari dagokionez, gauza ugari eta askotarikoak egin ditugu, hala nola **Haztegi eta Birpopulatzeko Arrain** Eskalen Obra Proiektu eta Zuzendaritza Nafarroan edo **Astizko Mendukilo Kobazuloa egokitze** Obra Proiektu eta Zuzendaritza (Nafarroa).





HIRIGINTZA

Hirigintza arloan, 2006. urtea ere bizi-bizia izan da **Lurralde Antolamenduari** eta **Hirigintzako Plangintzari** dagokienez.

- Lurralde Antolamenduari dagokionez, **Bizkaiko Foru Aldundiarentzat diagnosi** bat egin da Bilbo Metropolitanaren Lurraldeko Zati Planak helburu horretarako zehaztutako eremu handi batean, itsasadar aldean. Halaber, Aholkularitza alorrekin lankidetzan, **Kirol Ekipamenduen gaineko Lurraldearen Arloko Planaren Aurrerapena** idazten hasiak dira, **Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat**.
- Industria, etxebizitza eta bestelako sektore batzuetan, hirigintzaren garapenera bideratutako hamaika operaziotan parte hartu dugu, hasi aldez aurreko bideragarritasun azterketatik eta izapidetzeko moduko agiriak lantzeraino. Ildo horretan, hauek aipatuko ditugu:
 - **A Estrada-Pontevedrako Enpresa Parkearen** Proiektu Sektoriala **Xestur**-entzat, Galizian.
 - **Oñartxo Zoru Industrial berria, Azkoitian** (Gipuzkoa), **Urola Erdiko Industrialdea, SA**-rentzat (Sprilur-Gipuzkoako Foru Aldundia-Udalak).
 - **AP-I Autopista** inguruan jarduera ekonomikoetarako zoru berriak bilatu eta Bideragarritasun azterketak egin dira, **Araba Garapen Agentziarentzat** (Arabako Foru Aldundia).
 - **Getxoko Plan Orokorra** Bilboko Gune Metropolitanaren lurralde Zati Planera egokitu, egoitzen birdentsifikazioari dagokionez.
 - Etxebizitza eremu berria (82 etxebizitza) **Arrasaten, Sukia Sustapenerako**.
- Hirigintza berrikuntzan, nabarmentzeko modukoa da **Trapa-garango Arbolea Meatze Auzunea Babestu eta Zaintzeko Plan Berezia** (Bizkaia).



HIGIEZINEN AHOLKULARITZA

Hipoteka balorazioak

LKS Tasazio Sozietate gisan homologatua dago Espainiako Bankuko Tasazio Entitateen Erregistroan. Homologazio horren bidez, eta balorazio arauei buruz *Ekonomia Ministerioak* martxoaren 27an ezarritako *ECO/805/2003 Arauaren* aplikazio zuzenaren bidez, erabat legezaturik dago balorazio administrazioak egiteko.

2006an zehar mota orotako 12.083 balorazio egin da: etxebizitza kolektiboak, familiabakarrekoak, lokal komertzialak eta bulegoak, pabiloi industrialak, etxebizitza eraikinak, sustapenak, eraikin singularrak, etab.

Ondasunen eta eskubideen balorazioak

Ondasunen eta eskubideen balorazio ugari egin da kontabilitate, merkataritza eta hirigintzari loturiko helburuekin. Balorazio horiek Eusko Jaurjaritza, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako aldundiak, **Orubide** eta **Alokabide** eta udalugarientzat egin dira. Enpresa pribatuei dagokienez, honako hauei eskaini diegu gure zerbitzua: **Urco Urbasa**, **Fagor Etxetresna Elektrikoak**, **Ereaga Gestioa**, **Jaureguizahar**, **Alditrans**, **Eroski**, **R.P.K. Copesa**, **Inmogroup**...

Higiezin gestioa

Etxebizitza eraikin, merkataritza eta industria lurzoruen salmentarako gestioa egin dugu **Abadiño**, **Bergara**, **Oiartzun**, **Urduliz**, **Arrasate** eta **Gasteizen**. Kasu guztietan, produktaren eta merkatuaren azterketa indibidualizatu egin dugu, eta zenbait kasutan, eraldaketa urbanistikoa bultzatu dugu erabilera handitu eta hobetze aldera. Ondoren, salmenta estrategikoa definitu dugu, beti ere marketing eta merkataritza gestio lan zorrotz eta xehatu baten bitartez. Prozesu hori legezko aholkularitza eta aholkularitza fiskalaren laguntzarekin egin da uneoro.

Gainera, hainbat etxebizitza eta merkataritza lurzoru erosteko gestioa ere egin dugu **Eibar** eta Bilboko ibai eskuinaldean **Orubide** eta **Eroskirentzat**.





Sustapen gestioa

Sustapen Debatuko erregimeneko etxebizitzaren sustapenerako gestio integralak egin dira, eta honako lan hauek ere bai: bideragarritasun azterketa, lurzorua erosteko aholkularitza, gestio administratiboa, lege laguntza, laguntza fiskala eta kontabilitate laguntza, Administrazioaren aurrean ordezkaritza, finantzaketan laguntza, ekonomiaren, proiektuaren eta obra zuzendaritzaren kontrola, gremioen kontratazio eta koordinazioa eta erregistro aholkularitza **Oñati, Gernika, eta Aretxabaletan.**

Desjabetzeen gestioa

Desjabetzeari lotutako lan juridiko, tekniko eta administratiboetan laguntza eskaini diegu hala Eusko Jaurlaritzari nola Gipuzkoa eta Bizkaiko aldundiei **Barakaldon, Zumaian, Mutrikun, Antzuolan, Altzon, Bilbon, Bergaran, Urretxun...**





DISEINUA ETA BERRIKUNTZA

Garraioa: CAFekin lankidetzak

CAFekin lankidetzak estuan jarraitzen dugu, hainbat trenen kanpo eta barrualdeko diseinuan, estatuko eta nazioarteko lehiaketa ugaritan aurkezteko; horietan aipagarrienak: **Edinburgoko tranbia, Kairoko metroa, DB-Alemania eskualdeko trenak, Erroma-Viterbo aldiriko trenak, SNCF-Frantzia hiri inguruko trenak** eta **Palmako metroa**. Orain arteko lankidetzak LKS Diseinu eta Berrikuntzaren eskarmentu handia indartu baino ez du egiten bidaiarien garraioan, eta bere balioa eranstean die alderdi funtzional, ekonomiko eta pertzeptiboiei.

Burdingintza eta Sarrailagintza: TESA eta AZBerekin lankidetzak (ASSA ABOLÍ Taldea)

Gaiean jartzeko sarraila gama berri bat diseinatzeko proiektua benetako erronka izan da produktua errotik berritzeko ahaleginean. **Ferroforma'07-an** aurkeztu dugu lehen aldiz, ia hiru urteko garapeneren ondoren (2003-2006). LKS Diseinu eta Berrikuntzaren ekarpena funtsezkoa izan da oso kontserbatzailea den sektore batean abangoardiako produktu bat lortzeko lanean, bai barne diseinuaren egungo joerekin integratzen den irudi zainduari eta bai soluzioei eta erabilitako materialei dagokienez.

Eskuko erreminta: Bellota Erremintak

2006. urteak LKS Diseinu eta Berrikuntzak **Patricio Echeverria Korporazioarekin** lankidetzak estutu eta sendotzeko balio izan du.

Bellotaren estrategia korporatiboa erabiltzaile profesionalarengana hurbiltzea izan da eta LKSk horixe baliatu du erabiltzaileari zuzendutako produktua berritzeko lanean.

Ikuspegi horrekin, produktuaren kontzeptualizatzeko eta garapenera oinarritutako hainbat proiektu gauzatu dira, eta horien artean hauek aipatuko ditugu: kimaketa gama profesional berri bat diseinatu eta garatzea nekazaritza dibisiorako eta zurgin profesionaleri zuzendutako inglete zerra baten diseinua.

Makina Erreminta: Soraluzeren irudi berriaren definizioa eta aplikazioa

LKSren eta Soraluzeren arteko 2004-2006 lankidetzak esparruan hasitako proiektuarekin jarraituz, eta proiektu horretan aurrera egin eta sakonduz, egungo 2006-2008 esparruan hainbat proiektu landu da, hala Gama Irudiaren Eskuliburua osatzeko nola Soraluzek eskaintzen dituen gainerako fresatzeko makinetan ezartzeko.

la proiektuaren fase guztietan parte hartu dugu, eta gure esku hartzea, batez ere, erabiltzailearekin lotutako alderdian ardaztu da, lanpostuaren ergonomian, lanposturako nahiz lan eremuetarako irisgarritasunean, makinaren zatien integrazio arkitektonikoan, eta baita elementu identifikagarrien bilaketa eta definizioan ere, makinak oreka arrazional baten barruan pertsonalizatzeko.





Aisia eta Kirola: ORBEA bizikletak

Aurtengoa urte egitekotsua izan da LKS Diseinu eta Berrikuntzaren eta Orbearen arteko lankidetzan. Lankidetzak horrek eman duen emaitzarik aipagarriena gama profesionaleko bi bizikleta modelo berri merkaturatu izana da. Zein bere merkatu espezifikoa, modelo biok arrakasta handikoak izan dira bai jasotako aitorenaren aldetik eta bai komertzialki, eta arrakasta hori gerora izandako eskari handiak bermatu du. Alde batetik, Orca bizikletaz ari gara, Orbearen produktu izarra ordezkatzera datorrena, hau da, talde profesionalak erabiltzen duen karbonoz eginiko errepideko bizikleta, salmentetan arrakasta handia izan duena, bai nazioan bai nazioartean; bestetik, Oiz mountain bike bizikleta dugu, karbonoz egina baita ere, suspentsio bikoitzekoa.

Berrikuntza Aholkularitza:

Bizkaiko BAI Berrikuntza Agentziarekin lankidetzak.

Aholkularitza nagusien artean izandako lehiaketan esleipena jaso ostean, LKS Diseinu eta Berrikuntzak Produktu eta Zerbitzuan Berrikuntzarako Metodologia bat landu du, enpresa txiki eta ertainei espezifikoki zuzendua. Garatutako metodologiak berrikuntzaren "ikuspegi praktikoa" azpimarratzen du produktu-zerbitzuan, eta hori da jardueraren sektore askotan produktu berriak diseinatu eta garatzen emandako hogeitertetik gorako esperientziaren emaitza. Lankidetzak horrekin, LKS Diseinu eta Berrikuntzak produktu-zerbitzuan berrikuntzan -enpresen lehiakortasuna hobetzeko prozesu giltzarrietako bat- eragile aditu gisan betetzen duen rola sendotu egiten da.





GESTIO AHOLKULARITZA

■ NEGOZIO GARAPENA

2006an askotariko enpresei lagundu diegu **negozioa garatzeko** estrategiak formulatzeko orduan (Matz Erreka, Mecauto JMA, Lazpiur, Sakana Galdategia...), bereziki honelako prozesuetan:

- **Internazionalizazioa** (Aurrenak, Deguisa, SIC Lazaro, Matz Erreka Automatismoak)
- **Erosketak, aliantzak eta enpresa arteko lankidetzak** (ABX Logistics, Nicolas Correa-Anayak, Lactiber, Onitek), negozio berriak garatu eta merkatu globaletara hedatzeko helburuaz.
- Bezeroari zuzendutako **berrantolaketa** eta merkatuaren gestio eredu berriak (Lana, Bellota Erremintak Frantzia-Grezia-Maroko)

Beste sektore batzuei dagokienez, aipagarria da nekazarien eta industriren arteko sektorean dugun presentzia esanguratsua: esnegintza (Iparlat, Covap) eta mahastigintza eta ardogintza (Errioxako Upeltegiak, Albariño eta Txakolina).

Galizian eta Bizkaian, **ekonomia sozialeko enpresen sustapenerako** prozesu zehatzetan lan egiten jarraitu dugu eta baita enpresa kooperatibetan ere (Orona, Eroski...) **korporazioa indartzeko lanean**, beti ere enpresak bere gestio eta estrategiarekin bat egitea bilatuz.

■ ADMINISTRAZIOAREN MODERNIZAZIOA

Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan jarraitzen dugu iaz hasitako **Kontratazio Elektronikoari** buruzko proiektu batean. Proiektu horri hainbat sari eman diote; horien artean TECNI-MAPEk -Herri Administrazioak modernizatzeko Informazioaren Teknologiei buruzko jardunaldiak, non Espainiar Estatuako administrazio guztiak biltzen diren- ematen duen saria. Europar Batasunak adierazi du gurea puntako erreferentzia dela Europar kontratazio elektronikoa ezartzeko prozedurei dagokienez, eta Garapenerako Munduko Bankuak jarduera onenen katalogoan sartu du. Testuinguru honetan, SPRIren laguntza teknikoaren kalitatean lanean dihardugu eta baita Eusko Jaurlaritzako Industria Sailarekin ere, Informazioaren Gizartearen 2006-2010 Euskadi Plan berriaren definizio eta idazketan.

Iragan ekitaldian, erakunde publiko askok LKSn jarri zuen konfiantza **euren prozesuak hainbat esparrutatik aztertu eta optimizatzeko, izapidetze epeak murrizteko, jarduerak sinplifikatzeko, bezero/hiritarrarekiko zerbitzua optimizatzeko, barne koordinazioa hobetzeko...**: Guggenheim Museoa, Ertzaintza, Eusko Jaurlaritza, HAEE, Etxebide, Gipuzkoako Foru Aldundia...

Era berean, **Zerbitzuen Katalogoa** egin dugu Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat eta hainbat **Zerbitzu Karta** egiteko lanean ere parte hartu dugu, Koldo Mitxelenerarako, Gazteria Zuzendaritzarako, Fraisoro Ingurumen eta Nekazal Laborategirako, Zerga eta Finantza Saileko Zerga Laguntza Atalerako... Bestalde, hainbat erakundetan **Kalitatea eta Kudeaketa Eredua hobetzeko** tresnak ezartzeko lanean parte hartu dugu: Gipuzkoako Foru Aldundiari laguntza eman diogu bere Kalitate Plana berrikusi eta garatzeko eta proposamen berria egin dugu aro berri baterako; SPRIri laguntza eskaini diogu bere kalitate plana garatzeko; EFQM autoebaluazioa abiarazi dugu Arrasateko Udalean...

■ LURRALDEKO GARAPENA ETA IRAUNKORTASUNA

Iraunkortasunari dagokionez, aipatu beharra dago Klima Aldaketari Aurre egiteko Euskal Planean eta Udalsarea 21 Plan Estrategikoan (Iraunkortasun Planak onartuak dituzten euskal udalerrien sarea) gure parte hartzea; eta esku hartu dugula, baita ere, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzaren eta Ihoberen hausnarketa estrategikoan.

Mugigarritasunari dagokionez, lankidetzan estuan aritu gara iraunkortasunean aurrera egin eta langileen mugikortasuna hobetu guran dabilzan enpresekin, hala nola Fagor, Candy eta Oñatiko industrialdeko enpresekin, besteak beste. Garraio sailerako ere lan egin dugu, izan ere, datuak biltzen eta mugikortasun eta garraio eskaera ezaugarritzen ibili gara EAE osoa kontuan hartuta.

Lurraldeko garapenari dagokionez, Euskadin turismo sektorea dinamizatu eta sustatzeko 2000. urtetik Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailburuordetzak eskainitako laguntza programek izan duten eragina ebaluatu dugu.

■ KATE LOGISTIKOAREN GESTIOA

Alor honek aurrerapen handia egin du Pasaiaiko Portukoa eta antzeko proiektuekin. Portu horretan gero eta biziagoa da produktu siderurgikoen joan-etorria eta, ondorioz, **fluxu logistikoak optimizatu** beharra dago, siderurgian liderra den

enpresa bateko jatorrizko lantegietan kamioiak kargatzeetik hasi eta helburu portuan kamioiak kargatu arte; horretarako, hain zuzen, eskatzen diote laguntza LKSri. Anlisi horretan Ingalaterrako hainbat portutan egindako operazioak ere sartu dira.

Bestalde, Vulcano Faktorieta, Vigoko Itsasadarrean dagoen ontziolan, **Proiektu eta Antolamendurako Gestio Eredu** bat garatu dugu, bertan dituzten bezero mota diferenteeen premiei egokitutako baliozko proposamen bat egiteko, operazioetan eraginkorragoak izateko eta kostuak optimizatzeko.

Era berean, **barne fluxu logistikoak arrazionalizatzeari** lotutako arazoei aurre egiteko lanak egin dira, lantegi barruan orgen joan-etorriak dakartzan **arrikuak txikitze**ko helburuz. Ildo horretan, Fagor Ederlan eta Fit Automozioa enpresekin ibili gara lankidetzan. Azken enpresa horretan, gainera, honako aspektu hauek ere landu dira: **fluxu materialen eta biltegi-iratzte sistemen arrazionalizazioa eta hornitzaileekiko logistika**, JIT fluxu delakoaren barruan.

■ BERRIKUNTZA EREDUAK

Berrikuntzarako gaitasuna garatuz, hazteko eta lehiarako posizioa hobetzeko apustua egin duten hainbat enpresak LKSn jarri dute konfiantza, modu sistematiko eta etengabeen berrituz joatea ahalbidetuko dien eredu bat sendotzeko: Lana, Ojmar, Ikor.



■ ERAGINKORTASUN OPERAZIONALA

LKSk lagundu egin die eraginkortasuna hobetzeko proiektuei ekitea erabaki duten enpresei, euren prozesu industrialen **baliabideak optimizatzeko** eta **kostuak txikitzeko** helburuarekin. Hauek dira enpresa horietako batzuk: GKN Driveline Vigo, GKN Driveline Zumaia, Tailored Blank Zaragoza, Ampo, Poyam, Loramendi, Galgo Papers, Danona, Sakana, Sagola Taldea, Karlia, Zut Lan Bereziak, Inauxa...

■ BIKAINTRASUNA GESTIOAN

Lidergoari eutsi diogu gestioan bikaintasuna helburu duten jardueren aplikazio praktikoan: ULMA FORJA (Zilarrezko Q), ZUBIOLA (Urrezko Q), **Autoebaluazioa** (Caf, Biurrarena, Ikerlan, Geysler-Gastech, Auzolagun), **Prozesuen arabeko Gestioa** (Ormazabal Taldea, Eroski, Fagor Ederlan - Motorren Negozioa, Cidetek Fundazioa), **Kalitatearen Gestio Sistemak** (Electra Vitoria, Inauxa, Berdin, Eroski, Merchante Galbanizatuak).

■ PERTSONEN GESTIO EREDU ETA ESTRATEGIA

Pertsonen gestioari buruzko hausnarketa egin dugu Tubos Reunidos-ekin batera, **Giza Baliabideen estrategia negozio estrategiarekin lerrokatu eta kultura eraikitzeko** helburuarekin. Proiektuak honako aspektu hauek bildu ditu:

- Pertsonentzako eskakizunen gaineko ikuspegi partekatua sortzea, beti ere Tubos Reunidos-en helburu estrategikoetatik eta negozio testuingurutik abiatuta.
- Abioko egoera ebaluatu eta hobekuntza pertsonen gestio eta garapen prozesu nagusietan fokatu.
- Jarraritu beharreko aldaketa estrategia definitu eta abiarazi beharreko aldaketa ekimenak hautatu eta lehenetsi.

Ekitaldi honetan zehar, proba pilotu baten bidez, **Pertsonen Gestio eta Garapen Eredua** guztiz definitu dugu Maiarren. 2007. urtean zehar beharrezkoak diren egokitzapenak egingo dira eta eredia Taldeko enpresetan mailaz maila ezartzeko plana garatuko da.

Alor honetan, Geysler Gastech-en **Pertsonen Esku Hartze eta Garapen Eredua Definitzeko** proiektua ere oso garrantzitsua da; horretarako, kooperatibako profesionalak izan beharko luketen ezagutzak eta gaitasunak identifikatu, hedatu eta garatu dira.

Era berean, LKS Ingeniaritza Koop. Elkartearekin ibili gara lanean **Pertsonen Gestio eta Garapen Ereduaren Definizioan**, non giltzarri hauek jorratu diren: LKS Ingeniaritzako profesionalak eskatzen dituzten gaitasun profilak identifikatu eta esplizitu bihurtu; proiektuen gestio ereduaren integratuta egongo den lanpostuaren gestio sistema bat egituratu; konpentsazio eredia definitu.

■ ANTOLAKETA ETA ALDAKETA NAZIOARTEKO TESTUINGURUAN

Hainbat proiektu garatu dugu Eika Taldearen antolaketa eredia modu eraginkorrean ezartzen lagundu eta Taldeak azken urteotan bizi izan duen internazionalizazio gogorrek ekarri dituen erronkei erantzuteko. Proiektuak honako puntu nagusioi eutsi die: ELKA Taldearen antolaketa ereduaren irizpide nagusien gaineko ikuspegi partekatua garatzea; antolaketa eredia egokitu eta postu giltzarrien eta beharrezko diren koordinazio ekipamendu eta mekanismoen diseinua zehaztea; pertsonengan aldaketak duen eragina ebaluatu eta antolaketa eredia garatzeko eta ezartzeko estrategia planifikatzea.

2005ean hasitako lankidetza esparruari dagokionez, 2006an eta 2007an hiru unitate estrategikoak -Fagor Etxetresna Elektrokoak - Fagor Brandt - Fagor Mastecook- integratzeko lanean laguntzen jarraituko dugu, horietan oinarritzen baita Fagor Etxetresna Elektrokoak Taldea.

■ GARAPENA

Pertsonen Gestioan giltzarri den esparru honi dagokionez, SESPArekin -Asturiasko Printzerriko Osasun Zerbitzua- lan egin dugu, Osakidetzan izandako esperientziari jarraituz. Osasun arloko Lizentziadun eta Diplomadun guztientzako **karrera profesionaleko oinarrizko eredu bat definitzeko** lanean lagundu diogu SESPAri. Karrera profesionala funtsezko proiektua da osasun sistementzat, dagoen estankotasuna gainditu eta profesionalak akuilatu eta inplikatzeko.

■ KONPENTSAZIOA

Gredos San Diegorekin aritu gara lanean. Gredos San Diego Madrilgo irakaskuntza kooperatibarik handiena da, 270etik gora bazkide-langilerekin. Bertako **konpentsazio ereduaren diseinu eta ezarpenean** esku hartu dugu. Eredu hori bertako batzarrak onartu zuen eta 2007an jarraipena izango du, ordainsari aldakorren eredu definituko baita.

Katea-Legaia bat egiteari dagokionez, **bertako kolektiboen** (900 profesionaletik gora) **konpentsazio ereduak aztertu eta integratu** ditugu, hala ordainsari finkoari nola aldakorren dagokionez.

■ BESTE PROIEKTU ESANGURATSU BATZUK PERTSONEN GESTIOARI DAGOKION ESPARRUAN

- **Absentismoaren** kausen eta Gasteizko Udaleko **Udaltzainen inplikazioaren** analisia.
- **Pertsonetan izandako emaitzen ebaluazioak** erreferenteak diren enpresetan, hala nola ITP, Fagor Ederlan, ULMA Eraikuntza, Visesa, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Guggenheim Bilbao Museoen Fundazioan.
- SPRI SA eta MCCko Gestio Sozialarekin lankidetzan, 2006an **enpresetako sare komertzialen gestioari** buruzko **benchmarking**-a egin dugu.

■ ZUZENDARITZA GARAPENA

“Bilerak Zuzendu eta Komunikazio Trebetasunak hartzeko Zuzendaritza eta Gaikuntza, Eroski Koop. Elkarteko Kontseilu Sozialaren Batzorde Deleatuentzako”.

“MIHZ-ko (Mondragon Ingeniaritza eta Hezkuntza Zerbitzuak) **Kontseilu Errektorarako entrenamendu** proiektua”.

“Eroski Koop. Elkarteko **Kontseilu Sozialean Gestio Trebetasunak hartzeko** entrenamendua”.

“**Elkarrizketa Gaitasunen** garapena, Dapargel SL-ko Zuzendaritza Kontseilu handituarentzat”.

“**Elkarrizketa-Lidergoan** entrenamendua, Forum Sport SAKo Zuzendaritza Batzordearentzat”.

Zuzendaritza eta Gestio Gaitasunen garapena, Espainiako Nekazal Kooperatiben Konfederazioarentzat (CCA) eta Lurraldeko Federazioetako kudeatzaileentzat”.

“Gipuzkoako Batzar Nagusien **Lidergo Instituzionalaren prozesuan** aholkularitza eta **tutorizazioa**”.



TEKNOLOGIA AHOLKULARITZA

Azti teknologia institutua. Prozesuetara bideratutako Kalitate Atari bat ezartzea, eta horren barruan, beste edukien artean bat, Desadostasunen eta Ekintzen Gestioa sartuko da. Eduki horiek beren Intranetean sartu dira eta MS Sharepoint eta SQL Server-en garatu dira.

Corus ijezketa eta deribatuak. Kalitateko Plangintza Aurreratu gestioatzeko soluzio bat ezartzea (AMFES [Akats eta Ondorioen Azterketa Modalak], Kontrol Plana, Dossier Industrial...), eta Desadostasunen eta Ekintzen Gestioan integratu, kalibrazioa gestioatzeko programa batekin osatua: Calitel Calibra. Eduki horiek guztiak euren Intranet Korporatiboan hedatu dira.

Orona. 2006ko urtarriletik, enpresa honek LKSko talde baten laguntza jasotzen du sistemen gestioan. Taldea 3 pertsonak osatzen dute eta euskarri bat ziurtatzen dute 7 x 24 modalitatean. Oronak eta LKS kontratu bat sinatu dute zenbait aplikazio komertzialerako, mantentze zuzentzaile eta ebolutiborako. Poliki-poliki aplikazio horiek taldearen filial eta enpresa elkartu guztietara hedatzen ari dira. 2006an Orona UK proiektua hasi zen.

Fagor Etxetresna Elektrikoak. Enpresa honek LKSko talde baten laguntza izaten jarraitu du gestio aplikazioak erabiltzaileei hurbiltzeko zereginean Gasteizko 6. logistika zentroan eta hala izango da 2007an zehar ere.

Coverigh. 2005ean Kanadan eta AEBetan Hondos ezartzen amaitu ondoren, lehenagoko instalazioak eguneratzeari ekin zaio Espainian eta Frantzia, taldearen filial alemaniarrean ezartzeaz gainera.

San Jose Lopez - Valeo proiektua. Valeo enpresa - automozioiko osagaien hornitzailea- bezero berria erakarri izanaren ondorioz, San Jose Lopez Garraioak **Logestic** (garraio eta logistikarako ERP integrala) bultzatu nahi izan zuen Lanbarrerego (Oiartzun), Bartzelonako eta Madrilgo bere plataforma logistikoetan, eta hala, Hego/Ipar (produktu bukatua) eta Ipar/Hego (osagaiak) fluxuei erantzun.

Robert Bosch Tretoko tresneriari buruzko agiriaren gestio sistema. Proiektua zera izan zen: plantako lan produktiboetan erabiltzen diren 6.000tik gora erreminten planoak kudeatzeko sistema bat martxan jartzea (intranet korporatiboaren barruan).

Eusko Jaurlaritza. LKS lankidetzan ibili da **Industria, Merkataritza eta Turismo Sailarekin** gure Helburuen Hedapen eta Aginte Panelaren Soluzioa ezartzen, 2006-2009 Lehiakortasun Plana kudeatzeko.

Matia Fundazioa. Izaera sozialeko erakunde pribatu honek zerbitzu soziosanitarioak eskaintzen dizkie pertsona adindunei edota ezgaituei. Entitateak soluzio berbera ezarri du Eguneko Zentroetan, Ospitale eta zerbitzuetan eta **EEEn (Energia Euskal Erakunde)** hedatutako prozesuen kudeaketarako euskarri gisan.

Visesa (**Euskadiko Etxebizitza eta Lurra**). Intraneta diseinatu eta Microsoft SharePoint plataforman ezarri, erakundeak bereganatutako Prozesuen araberako Kudeaketa Eredua garatzeko tresna gisan.

Ampo. Microsoft plataforman soluzio bat diseinatu eta garatzea Produktuaren Dokumentazioaren Gestiorako (MDR), bezeroei entregatu behar zaiena, kontratatutako produktu eta zerbitzuen parte baita.

Adegi (**Gipuzkoako Enpresarien Elkarte**a). Bezero eta bazkideekiko (AdegiLan) Harreman Atariaren eta Intranet AdegiNet Atariaren Bilakaera eta Mantentzea.

Fagor Ederlan. Teknologia aholkularitzako proiektua, integraziozko soluzio korporatibo bat hautatzeko. Proiektua zera izan da: kanpoko integrazio beharrak -nagusiki bezeroekiko- eta barnekoak -aplikazio korporatiboaren artekoak- aztertzea eta proiektu pilotu bat egitea (MS Biztalk Server erabiliz), inbertsioak eskatzeko prozesua ardatz hartuta.

Fagor Etxetresna Elektrikoak Taldea: Korporazioa Sendotzeko CPM Proiektua. Proiektu hau, Fagor Etxetresna Elektrikoak Taldea legez sendotzeko prozesua optimizatu eta automatizatzean datza, Cognos plataformaren laguntzarekin (zehazki, Controller erremintarekin).

Tuboplast. Prozesuen bilakaera teknologiko, hobekuntza eta birdiseinuari eusten jarraitzen dio, besteak beste, honako alor hauetan: salmentak, administrazioa, erosketak, biltegia, Merkatu Antolakunde Bateratuak, fabrikazioa, etab., hala Gasteizko plantarako nola CTLrako (Frantzia). Bestalde, 2006an zehar tailerreko jarraipena bukatu da eta datu fidagarriagoak eskuratu dira, modu azkarrean, datuok ondoren aztertu eta kontrolatzeko.

Fagor Arrasate. Enpresa honekin batera Supplier Relationship Management (SRM) tresna teknologikoa diseinatu eta ezarri dugu. Tresna horrek lagundu eta optimizatzeko baliagarria da hornitzaileen kudeaketari dagokionez, horrek garrantzi handia baitauka negozioan. Proiektua enpresek inahalekin lerrokatzean datza, enpresok hornidura kateko kideak izaki.

Jorge Fernandez Zeramika Taldea. Jorge Fernandez Zeramika Taldea intranet-extranet moduloa ezartzen ari da progresiboki, enpresa hedatuaren kontzeptuari jarraiki, bere ERP-Nodhos-eko zenbait prozesu saltzaileei eta azpibanaketari hurbilduz. Eta azpibanatzaileentzako aplikazioaren bitartez, honako aukerak dituzte: Identifikazioa (Login, Password,...). Jorge Fernandez Taldearen produktu katalogoa ikustea, eskarien bidalketa, kudeaketa eta kontrola, eta azken bezeroari aurrekontuak egін eta inprimatzea.





Ederfil-Becker. Handitze eta hobetze prozesuan, enpresa biok beharrezkotzat eta egokitzat jo dute prozesuak globalki berriz aztertzea, enpresa bion behar operatibo eta teknologikoak egokitze aldera.

Ikerlanek “prozesu giltzarriak” birdiseinatu ondoren, asmoa da bezeroarekiko zerbitzua hobetu eta informazio sistemak berrituko dituen tresna informatiko bat “digitalizatu” eta ezartzea, OAS arkitektura berriak ezarriz, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Ederfil taldearen negozio prozesuetara lotu eta bideratuz, enpresa hedatuaren ikuspegiarekin.

Insago PVC. Hermes 10 leihoak fabrikatzen dituen konpainia hau liderra da merkatu nazionalan. Bere hazteko estrategiaren barruan, LKSri esleitu zion negozio ereduari eutsiko dion teknologia eta komunikazio plataformaren definizioa, kudeaketa prozesuen optimizazioa helburu.

Biurrarena. Produktu/prozesuen online katalogoaren gestioa, erosketa eta produkzio ERParekin integratua; ataltzeen eta marjina komertziala doitu duten multzoen araberako eskaintza sortzea; hartutako proiektuen dokumentu kudeaketa, eta egikaritzea kostuen kontrola.

SEI. Bidarten dagoen LKSren filiala. Frantziako ehungintzako merkatuan gero eta sartuago, **Kiabi, Okaidi, Pimkie** eta antzeko enpresa ospetsuekin sinatu ditu kontratuak.

Turbomeca. Helikopteroentzako turbinak fabrikatzen munduko liderra. SEI aukeratu du “Tools” ataria garatzeko. Atari horrek ekipamenduak konpontzen dituztenei informazio teknikoak helarazten die. Munduan 3.000tik gora dira konpontzaile harpidedunak.



ABOKATUAK

- **Gamei** enpresa erostea. Operazio honetan erabateko Due Diligence-a gauzatu da: operazioaren diseinua, kostu fiskala optimizatu da, kontratuak idatzi dira eta negoziazioan izan gara operazioa bukatu arte.
- Auzi eskea **Anton Bauer G BH**-ren kontra, kontratuko betebeharrak ez betetzeagatik. Aldeko epaia lortu genuen eragindako kalte-galerengatik.
- Teknologia zentro ugari eratzea. Aldez aurretik zentro bakoitzari zegokion forma juridikorik egokienari buruzko azterketa egin genuen.
- Transferentzia prezioen eskuliburuak ezartzea sozietate taldeetan.
- Aholkularitza “**European Bank for Reconstruction and Development**”-en partaidetza hartzean, **F. Mastercook**-en.
- Atzerrira lekualdatutako langileei buruzko aholkularitza, eta bezeroei laguntzea nazioartera hedatzen direnean.
- “Bulego Lankideen Sarea” indartzea, **Peres de Lima (Portugal)**, **Guzeldere Law Firm** (Turkia), eta **A.V.V. Abogados** (Italia) sartu ondoren.
- Aholkularitza eta Gida Letradua gatazka askotan, Jabetza Industrial eta Intelektualaren alorrean.
- Hainbat merkataritza sozietateren kooperatibizatze prozesuan parte hartu dugu, non bertako langileak bazkide kooperatibista bilakatu diren.





2006KO IRUDIAK

Globalizazioari eta Deslokizazio Industrialari buruzko I. LKS Foroa

Enpresa munduko eta erakundeetako 200dik gora ordezkari bertaratu zen Euskalduna Jauregian izan zen “Globalizazioari eta Deslokizazioa Industrialari buruzko I. LKS Forora”. Ekitaldiko burua Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailburu den Ana Aguirre izan zen. Juan Jose Ibarretxe Lehendakariak Txiletik esku hartu zuen, Txilen baitzegoen hango presidentea karguaz jabetzen ari zelarik.

MCCko presidentea den Jesus M. Cataniak hasi zuen eguna. Zortzi txosten aurkeztu ziren eta adituek osatutako mahainguru bat egin zen. Ekitaldia Confedebako Presidentea den Miguel Lazpiurrek itxi zuen.

Kantabriak XXI. mendean dituen erronkei buruzko jardunaldia

Mcctelecomek eta LKSk jardunaldia antolatu zuten Bahia de Santander Hotelean, “**Kantabriak XXI. mendean dituen erronken**” gainekoa, Kantabriako Presidente den Miguel Angel Revilla buru izan zuena.

Ekitaldian, gainera, Antonio Cancelo MCCko presidente ohiak parte hartu zuen eta “Enpresa arteko lankidetzazko estrategiak munduko testuinguru berrian” gaiari buruz mintzatu zen. Mondragon Korporazio Kooperatiboko (MCC) presidenteorde den Javier Sotilek ere parte hartu zuen, eta gai hau planteatu: “Eskaintzaren integrazioa kantabriar enpresak posizionatzeko estrategia gisan”.

“**Cooperativas, globalización y deslocalización**” liburuak gai honi buruzko hainbat ikuspuntu jasotzen du. Hor azaltzen dira MCCko Kontseilu Orokorreko lau presidente, talde kooperatiboko sei exekutibo industrial eta bi analisigile: LKS Koop Elkarteko Zuzendari Nagusia eta Iñazio Irizar, liburuaren koordinatzailea. LKSk kolaboratu egin du liburuan. (Azala Koadernoan 38. zenbakian duzu)

Logestic-en aurkezpena

LKSk **Logestic** aurkeztu zuen, hau da, garraioaren eta logistikaren sektorerako bere soluzio informatiko integrala. Aurkezpena Expologistica-n izan zen. Produktu berria teknologia berrietan oinarritua dago eta etorkizun ikuspegia bermatzen du.

LKS Ingeniaritzak bere jakituria erakutsi du Polonian

LKS Ingeniaritzak Central Europe Meeting Point (CEMP) Nazioarteko Higiezinaren I. Symposium eta Erakusketan parte hartu, Polonian. Ekitaldian, izena emana zuten 500 profesional, 18 herrialdeetatik etorritako 217 enpresa parte hartzaile eta 38 enpresa erakusketari egon ziren.

LKS internalizazio proiektuak indartzera agertu zen hitzordura, eta baita Espainiako eta beste herrialde batzuetako sustatzaileen aurrean LKS ingeniaritzak Polonian presentzia daukala eta tokiko partnerrekin aliantzak dituela erakustera ere, etorkizuneko proiektuei begira europar merkatuaren egoera hurbiletik ezagutzen duela agerian utzi.

